

Xabier Landabidea Urresti

Azurmendi zapping

Gogoratzen dut noiz ezagutu nuen lehen aldiz Joxe Azurmendiren lana: UEU eta EHUren artean antolatutako *Euskal Herriko Pentsamendu Kritikoa XXI. mendean* graduondokoaren baitan izan zen, Alaitz Aizpuru, Bakarne Altonaga eta Andoni Olariaga tituluaren koordinatzaileen eta bertatik igaro ziren irakasleen eskutik.

Harrigarria zait nola iritsi zen EAEn osoki euskaraz alfabetatutako pertsona bat unibertsitateko graduondoko mailara Azurmendiren lana ezagutu gabe. Norberaren ardurak ardura eta lotsak lotsa, badiosku zerbait gure hezkuntza sistemaren eta gure kultur transmisiorako mekanismoen ahal eta ahulgunez ere. Ezagutzen nuen noski Azurmendiren izena arinagotik ere, inguruko paisaia osatzen duten baina inoiz igo ez dituzun mendiak eta ingurukoek gomendatu arren inoiz irakurri ez dituzun liburuen izenburuak ezagutzen diren modu lauso horretan. Baina haren lana hantxe ezagutu nuen.

Orduz geroztik, Azurmendiren lanarekin izan dudana harremana erabat hipertestuala izan da. Ez diot sekula modu diziplinatuan ekin haren obra irakurtzeari, eta gaur arte ez dut Azurmendiren gainean ezer idatzi (graduondoko hartan karta bat –ikus txerren.wordpress.com– egin nion arren). Baina egun *Jakin.eus*-en eskuragarri dauden haren 685 lanen artean sarritan egin izan dut zapping. Sartu-irtenak egin ditut han-hemen haren poesian, haren hausnarrean... eta beti aurkitu dut zerbait berria, zerbait ona, zerbait beharrezkoa, zerbait erabilgarria.

Zappingari suposatzen diogunaren kontrara, Azurmendiren lanetan murgiltzeak beti busti nau, beti aldatu nau, beti eskaini dit zentzua, beti lagundu dit hobeto, lasaiago, urrunago pentsatzen. Beti utzi dit hondar emankor bat: zalantza hazi bat, ziurtasun apurren bat, hiztegi bat behar nuela ez nekiena.

Hitz berdeak eta Manifestu atzeratua, edo Kolakowski eta Arana Goiri-
ren pentsamendu politikoa. Jon Mirande eta Miguel Unamuno. Koo-
peratibismoa eta Errealismo Sozialista. Espainiaren arima eta ETAko
gazte eroak. Demokratak eta biolentoak. Barkamena, kondena, tor-
tura. Harrigarria zait gaur egunetik begiratuta zein gai ezberdinez
irakurri eta idatzi zuen eta nola lortu zuen beti esanguratsua izatea.
Perspektiba hitza etortzen zait batez ere gogora. Ezinbestekoa eta gu-
rea. Sakona bezain argia, konprometitua bezain irekia. Beti garaikide,
beti aurreratu.

Azurmendiren balioa ez da bakarrik zertaz edo zer pentsatu zuen, bai-
zik eta nola eta zertarako pentsatzen zuen. Ez zen dena jada pentsatu-
ta duten horietakoa, pentsatzearena atzean utzitakoa, ez besteei nola
pentsatu behar duten esaten dien pentsadorea ere. Pentsatzen *ari* zen
euskalduna, bere zentzu osoan pentsalaria.

Oso gauza ebidentea dirudi, baina 2025eko perspektibatik Azurmen-
diren obra eskutan (eskutan diot, orain haren bizitza osoko lana pol-
tsikoan daramagun ordenagailuan eraman baitezakegu), nabari da
aritze intelektual hori haren lanean. Bilaketa etengabea, eraikuntza
etengabea, ariketa etengabea buru-belarri ibili zen eta goroldiorik
inoiz batu ez zitzaion euskaldun erreala.

Gure bizitzak laburregiak dira dena irakurri eta denaren inguruan
pentsatu eta idatzi ahal izateko, baita erraldoienak ere. Hemendik au-
rrera datozkigunen aurrean faltan izango ditut, faltan izango ditugu
Azurmendiren ideiak eta hitzak, baina haren emanak aurkikuntza be-
rriak ekarriko dizkigu oraindik ere. 2025 honen uztailan, UEUren
baitan, TEKS elkartearen, Badalab Hizkuntza Berrikuntza Laborate-
giaren eta Humanitate Digitalen Ikerketa Guncaren artean antolatu-
tako *Eraldaketaarako teoriak zorrozten: Pentsamenduaren bidez praktikak be-
rritzen* udako ikastaroa adibide.

Bi gigabyte inguru okupatzen dute haren liburuek nire ordenagai-
luan. Bi mila mega. USB batean sartzeko modukoa.

Ez al da harrigarria zein gauza handiak sartzen diren hain leku txikian.